

**2020KO XXV EUSKADI IKERKUNTZA SARIA
XXV PREMIO EUSKADI INVESTIGACIÓN 2020**

2021-07-09 Vitoria-Gasteiz 09-07-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Eusko Legebiltzar buru andrea eta zurekin batera zaudeten herri agintari eta herri ordezkariok eta streaming bitartez jarraitzen duzuen guztiok ere bai, Unibertsitateetako errektore andre jaunak, epaimahaikideok, beste urte batzuetako sarituak eta bereziki D. Pedro M^a Etxenike jauna, Fernando Cossio Mora jauna eta senitartekook, jaun andreok; ongi etorri eta egun on.

Ongi etorri berezia urrutitik ekitaldi hau jarraitzen ari zaretenoi.

Representa un alto honor, en este momento en que la investigación científica está contribuyendo directamente a superar esta pandemia, compartir contigo Fernando, este Premio Euskadi de Investigación.

Es la ciencia y la investigación y, en concreto las vacunas, las que están contribuyendo a que podamos asistir a la salida de la crisis. Pero la investigación y la ciencia, además de inversión, necesitan tiempo.

Con las medidas restrictivas hemos ganado tiempo para que la ciencia y la investigación puedan contribuir de forma decisiva a que la población más vulnerable pueda estar hoy protegida. Necesitamos más tiempo para proteger a nuestros jóvenes especialmente. Necesitamos tiempo para culminar el gran esfuerzo social realizado a lo largo de estos 16 meses.

Estos cinco próximos días van a ser claves y solicitamos un esfuerzo más, porque el verano está aquí, pero el virus también. Lo primero es seguir cumpliendo las medidas en vigor:

- Uso de la mascarilla siempre;
- Distancia de metro y medio siempre;
- Evitar las aglomeraciones siempre; y
- No consumir nunca alcohol en la calle, y si es posible tampoco fumar.

Cumplir estas medidas puede contribuir a ganar ese tiempo que necesitamos para proteger a la ciudadanía en estos meses clave para completar la vacunación y dejar atrás la pandemia.

Denbora behar dugu 16 hilabete hauetan gizarte osoak egin duen ahalegina ondo borobiltzeko. Gazteen txertaketarako denbora irabazi behar dugu. Denbora hori irabazteko, lehen pausua da ditugun neurriak betetzea:

- Maskara beti;
- Distantzia gorde beti;
- Jende pilaketak saihestu beti; eta
- Kalean alkoholik ez edan, ahal izanez gero ere ez erretzea, eta beti ere distantziak mantenduz.

Neurri horiek eraginkorrak direla frogatu dute herritar guztiak babesteko. Neurri horien bidez txertoa osatzeko eta pandemia atzean uzteko funtsezkoa den hilabete hauetan herritarrak babesteko behar dugun denbora irabazi dezakegu. Datozen bost egun hauek oso garrantzitsuak dira helburu hauek lortzeko.

Aurtengo Euskadi Ikerkuntza Sariak bi berezitasun ditu:

- Alde batetik, 1996garren urtea hasi eta, beraz, 25garren ekitaldia ospatzen dugu.
- Bestetik, bigarren urtez, Covid-aren eraginez elkartzen gara modu honetan.

Pandemiak gure artean jarraitzen du eta, egun seinalatua da gaurkoa, hau gogoratzeko eta Ikerkuntzaren garrantzia azpimarratzeko.

Egia esan, pandemiak ez du gelditu gure etengabeko helburua: zientzialarien ibilbideari eta ahaleginari aitortza egitea. Alderantziz gertatu dela esango nuke, hau da, gizarteak balio gehiago ematen dio ikerkuntzan ari zareten pertsona guztien lanari.

Pertsona hauen artean Fernando Cossio Mora jauna dugu. Gaur, berari eman diogu “Euskadi Ikerkuntza Saria”, hau da, gure aitortza eta esker ona.

Zure ibilbidea 1984garren urtean hasi zen. Aitzindaria izan zara ibilbide zientifikoan eta, urte oparo hauetan, hainbat gailur, aran eta lautadak gainditu eta zeharkatu behar izan dituzu. Aitzindaria eta tematia izan zara. Horregatik zure etengabeko lana, ahalegina eta ekarpena nabaritu nahi izan dugu.

Pertsona aitzindaria, tematia eta gertukoa ere izan zara. Zurekin batera, zure senitarteko eta kideei luzatzen diegu Sariaren esker ona, bereziki “zure” Anari. Merezimendu osoz jasotzen duzu Saria hau. Zorionak Fernando!

El “tiempo de pandemia” ha contribuido a poner más en valor la investigación científica ante la sociedad. Por eso, es importante recordar que este Premio Euskadi de Investigación se puso en marcha en 1996 y que este año celebramos el 25 aniversario.

Estos años el Premio ha reconocido a personas desatacadas por su aportación al conocimiento y el talento generado a través de la investigación de excelencia.

Este es un pilar esencial de la sociedad vasca. Una sociedad que aspira a ser considerada avanzada, equitativa, inclusiva y preparada para gestionar o adelantarse a retos impensables.

Esta definición encaja con la personalidad de Fernando Cossio Mora, Premio Euskadi de Investigación.

Fernando es un modelo para nuestra política científica. Un ejemplo de compromiso y generosidad por su dedicación singular a la tarea de construir una escuela científica para nuestro País.

Compromiso, generosidad y dedicación.

Fernando, agradecemos tu aportación a la investigación, la ciencia, la innovación, el talento y la proyección internacional de Euskadi Basque Country.

Somos conscientes de que para atraer y retener talento debemos disponer de entornos científicos de excelencia y contar con personas excepcionales. Instituciones, Universidades, Centros de investigación, Ikerbasque, todos los agentes son fundamentales en esta labor y, sobre todo, las personas.

La generosidad como hábito de compartir es un elemento indispensable en la construcción de toda sociedad, de todo proyecto.

Fernando, esto es lo que representa este Premio. Un reconocimiento a tu liderazgo en la investigación de excelencia, tu capacidad de crear una escuela científica de referencia, tu determinación para abrir huella en ámbitos científicos inexplorados a través de la investigación.

Reconocemos el camino recorrido y te animamos a seguir recorriendo ese camino juntos.

Ikerkuntza Sari honek eskuzabaltasuna eta auzolana aitortzen ditu, biak ala biak. Ikerketa lana eta ikerketa izpiritua aitortzen ditu, biak ala biak.

Zure konpromisoa eta zure jarrera ere bai, beti Euskadiren alde, handik eta hemendik, Tolosatik eta Donostiatik, beti ere euskal gizarte osoari zure ekarpena eskaintzen.

Gure helburua eta nahia da zure ibilbidea sustatzen eta indartzen laguntzea. Akuilu bat izatea, egindako bidean argi gehiago jartzeko eta egin beharreko bidean aurrera egiten laguntzeko.

“Eman ta zabal zazu” da partekatzen dugun xedea...

Asko eman duzu, asko duzu oraindik zabaltzeko.

Fernando, aúnas investigación y gestión de la política científica de nuestro País. Aúnas la Universidad, Ikerbasque y la Red vasca de Ciencia Tecnología e Innovación como palancas de nuestro progreso presente y futuro.

Tras incorporarte a la Universidad del País Vasco y cursar tu doctorado en Donostia te volcaste en la investigación de excelencia. Te volcaste en ese ejercicio que has calificado del “nosotros”; te volcaste en la labor docente e investigadora.

Durante 37 años has creado una escuela vasca en el ámbito de la Química. Tu aportación destaca tanto en la vertiente teórica como en el desarrollo experimental y de aplicación a la química médica y la física de partículas. Has desarrollado tu tarea intelectual, investigadora y aplicada al servicio de la sociedad vasca. En, Desde y Para Euskadi.

Has querido compartir este Premio con tu familia, amistades, compañeras y compañeros profesionales.

Gaur zure familia, lagun eta lankideekin partekatu nahi izan duzu Sari hau.

Hori ere bada gure Herriaren nortasuna indartzea, pertsonak eta harremanak lehenestea, norberaren lana eta auzolana denon mesedetan partekatzea.

Eskerrik asko eta zorionak Fernando Cossio Mora jauna.

Gaur euskal gizartearen izenean zure eskuzabaltasuna, jakintza, ekarpena eta konpromisoa aitortzen ditugu.

“Eman ta zabal zazu”... Zorionak eta eskerrik asko!